



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

2023. URTEAN GETXOKO UDALERRIAN ENPLEGUAREN SORRERA SUSTATZEKO TOKIKO ENPRESETARAKO LAGUNTZEN UDAL-PROGRAMAREN DEIALDIA. DIRULAGUNTZA HORIEK 2023KO EKITALDIRAKO ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKI-EKINTZETARAKO LAGUNTZEN DEIALDIAREN BARNEAN KOKATZEN DIRA. (2023-05-24KO EHAA, 97. ZK.).

Getxoko Udalaren helburu nagusia da tokiko garapena sustatzea, jarduera ekonomikoaren sustapenaren bidez. Horretarako, Getxolan, Getxoko Udalaren Ekonomia Sustapenerako eta Enplegu Zerbitzuaren eginkizuna da, "Getxoko tokiko garapena eta hazkunde iraunkorra sustatzea berrikuntza, ezagutza eta sareko lanaren bidez", eta honako hauen aldeko ekintzak garatzen ditu: enplegu-aukerak, enpresa-sarea sortu, hazi eta hobetzea, eta udalerriko bizitza dinamizatzea, horretarako, baliabide endogenoak eta kanpoko aukerak baliatuz.

Getxoko Udalari beharrezkoa iruditzen zaio ekintzak egitea, langabeen kontratazioa sustatuko dutenak, udalerriko enpresei dirulaguntzak emanez.

Laguntza horiek Getxoko Udalak sustatzen ditu, eta Lanbide Enpleguaren Euskal Zerbitzuak finantzatzen ditu, Lanbide Enpleguaren Euskal Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2023rako 2023ko maiatzaren 18ko Ebazpenean (2023-05-24ko EHAA, 97. zk.) argitaratutakoari jarraituz.

Honako deialdi honek arautzen du dirulaguntza hauen esparru orokorra.

0. Araudi erregulatzailea:

- Getxoko Udalaren eta haren erakunde autonomoen dirulaguntzen ordenantza orokorra, 2021eko abenduaren 23ko osoko bilkuran onartua eta 2022ko martxoaren 16ko BAOng argitaratua, deialdi honen oinarri arautzaileak dakarrena.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzei buruzkoa (BOE 2003/11/18).
- Ekainaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, dirulaguntzei buruzko Legearen Erregelamendua onartzen duena (BOE 2006/07/25).
- 2023ko maiatzaren 18ko Ebazpena, 2023. urterako Enplegua Sustatzeko Tokiko Ekintzetarako Laguntzak emateari buruzkoa (EHAA 2023-05-24).
- 2023ko irailaren 26ko Ebazpena, Lan Aktibazioko zuzendariarena, 2023ko ekitaldirako enplegua sustatzeko Tokiko Ekintzetarako Laguntzen Deialdian egin beharreko proiektuak arautzen dituena.



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

- Datuak babesteko erregelamendu orokorra (EB 2016/679).
- Otsailaren 20ko 2/1998 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigorrezko Ahalmenari buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, herri-administrazioen administrazio-prozedura erkideari buruzkoa.
-

1. Xedea.

Laguntza hauen helburua laguntza ekonomikoa ematea da, esparru arruntean tokiko enpresek enplegu-eskatzaille gisa Lanbiden izena emanda dauden langabeen kontratazioa bideratzeko.

Ondorio hauetarako tokiko enpresatzat joko dira Getxoko udalerrian lantokia eta jarduera ekonomikoa duten pertsona fisiko edo juridikoak, izaera pribatukoak.

Deialdi honen xedea da arautzea 2 idatz-zatiko baldintzak betetzen dituzten langabeen lan-kontratazio mugagaberako laguntzak, artisten eta jendaurreko ikuskizunetako teknikarien eta laguntzaileen iraupen jakinekoak, baita Gizarte Segurantzaren araubide orokorrekoak ere.

Laguntza horiek jaso ditzaketen kontratuak dira 2022ko uztailaren 1etik 2023ko ekainaren 30era artean hasitakoak. Kontratu mugagabeen bidez egin ahal izango dira kontratuak, baita artisten eta ikuskizun publikoetako teknikarien eta laguntzaileen iraupen mugatuko kontratuen bidez ere. Kontratu horien gutxienezko iraupena 3 hilabetekoa izango da, eta lanaldi osokoak edo partzialekoak izan ahal izango dira, gutxienez lanaldiaren % 50arekin.

2. Onuradunen betekizunak.

Deialdi honetan jasotzen denaren onuradunak izan daitezke pertsona fisiko edo juridikoak, izaera pribatukoak (enpresak, saltokiak, profesionalak, elkarteak...), edozein dela haien izaera juridikoa, langileekin besteren konturako lan-kontratuak egiten badituzte, eta lantokia eta jarduera ekonomikoa Getxon badute.

Entitate onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte, gainera, dirulaguntzak lortu ahal izateko:

- 3 idatz-zatian jasotako baldintzak betetzen dituzten langabeak kontratatzea eta Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean alta ematea.



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

- Enpresak edo entitateak ez izatea administrazio, erakunde edo organismo publikoen mendekoak edo sozietatea ez egotea haiekin lotuta, edo % 25ean baino gehiagoan haiek partaidetua.
- Foru ogasunarekiko zerga betebeharrak, gizarte segurantzarekikoak eta Getxoko Udalarekikoak egunean edukitzea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, interesdunek eskubidea dute administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administraziok egindako dokumentuak ez aurkezteko.

Gainera administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu; kasu horretan, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu. Getxoko Udalak zuzenean kontsultatuko die administrazio publiko eskudunei honako informazio hau:

- Getxoko Udalarekin ordainketak egunean daudelako ziurtagiriak
- Foru Ogasunarekin egunean daudelako ziurtagiriak
- Gizarte Segurantzarentzako ordainketak egunean daudelako ziurtagiriak

3. Laguntza kontratatzeko baldintzak.

- Kontratatu beharreko pertsonak Getxon errolatuta egon behar dute, gutxienez lan-harremana hasi aurreko egunean.
- Kontratatu beharreko pertsonak langabeak izan behar dute eta izena emanda egon behar dute, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa alta emanda egon behar dute kontratua hasi aurreko egunean.
- Lan-harremana 2022ko uztailaren 1etik 2023ko ekainaren 30era bitartean hastea.
- Kontratazioari dagokionez laguntzaren xede den pertsonaren lantokia Getxoko udalerrian egotea.
- Lan-kontratuak indarraldi osoan indarrean irautea (kontratu mugagabeen kasuan, gutxienez 12 hilabete). Lan-harremana dirulaguntzaren xede den aldia baino lehen amaitzen bada, laguntza ezetsi egingo da, salbu eta lan-harremant hori amaitu bada probaldia ez gairatzeagatik, borondatez uzteagatik, bidezkotzat jotako kaleratzeagatik edo kontratatutako pertsonaren heriotza edo baliaezintasunagatik; kasu horretan, dirulaguntzaren zenbatekoa lan-kontratuaren benetako iraupenaren arabera murriztuko da. Enpresa kontratatzaileak enplegatzailearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik kontratua iraungi zaion pertsonaren ordean deialdi honetan eskatutako baldintzak betetzen dituen beste



pertsona bat jartzen badu, 30 egun natural izango ditu kontratu mugagabe berri bat formalizatzeko, Gizarte Segurantzaren baxerantz hartzeko duen egunetik zenbatzen hasita. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoak bere horretan jarraituko du, baldin eta bi kontratazioen aldien batura gutxienez hasierako kontratuarena bada. Gizarte Segurantzaren alta eman eta gehienez ere 15 eguneko epean jakinarazi beharko da kontratu berria; hori egin ondoren Getxoko Udalak enpresak dirulaguntzari eutsi ahal izateko egin beharreko izapideen berri emango du.

- Kontratazioek enplegu-sorrera garbia ekarri beharko dute enpresan diruz lagundutako kontratuaren xede diren pertsonak lanean hasi aurreko 6 hilabeteetan dagoen batez besteko plantilla osoaren gainean.

Kalkulu hori egiteko, honako hau kontuan hartuko da: dirulaguntza eskatzen den kontratazio-egunearan alta emandako langileen batez besteko plantilla, kontratazio-egunaren aurreko sei hilabeteetan alta emanda izandako langileen batez besteko plantillaren baina handiagoa izatea. Egoera hori egiaztatzeke, Gizarte Segurantzak egindako "alta emanda dauden langileen batez besteko plantillaren bi txosten" entregatu beharko dira; bata, kontratuaren egunaren aurreko sei hilabetei dagokien, eta bestea, dirulaguntza eskatzen den kontratazioaren egun berekoa da.

Adibidez: 2023ko ekainaren 15ean egindako kontratu baten plantillako igoera garbia egiaztatzeke eman beharreko txostenak honako hauek izango ziren:

1. Altan dauden langileen batez besteko plantillaren txostena, 2022ko abenduaren 15etik 2023ko ekainaren 14ra arte.
2. Altan dauden langileen batez besteko plantillaren txostena, 2022ko ekainaren 15etik 2023ko ekainaren 15era arte.

- Enpresa bakoitzeko 2 kontratu diruz lagunduko ahalko dira gehienez.

Ez dira diruz lagunduko:

- Enpresaburuarekin edo enpresa-kontrola dutenekin, zuzendaritza-karguak dituztenekin edo sozietate-forma juridikoa duten enpresetako administrazio-organotako kideekiko ezkontidea, ondorengoak eta bigarren mailara arteko odolkidetasunezko edo ezkontzazko ahaidetasuna duten gainerako senideak kontratatzea.
- Enpresa berak pertsona bera kontratatzea aurreko deialdietan diruz lagundu bada.

- % 50etik beherako lanaldietarako egiten diren kontratazioak.

4. Diruz lagundu beharreko kontzeptuak eta laguntzen zenbatekoa.

Eman beharreko laguntzen gehieneko zenbatekoa eta diruz lagundu daitezkeen gastuak honako hauek izango dira:

4.1. Kolektibo hauetako langabeak kontratatzeko laguntzetarako.

- DSBEren jasotzaileak/titularrak edo onuradunak.
 - 35 urtetik beherakoak.
 - Luzaroko langabeak. Luzaroko langabetzat joko dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzailer gisa inskribatuta daudenak kontratazioaren aurreko 540 egunetan, baldin eta aldi horretan gutxienez 360 egun eman badituzte langabezia.
 - 55 urtetik gorako pertsonak.
- ✓ Gehienez 10.000 €-ko laguntza lanaldi osoko lan-kontratu mugagabe bakoitzeko.
 - ✓ Gehienez 5.000 euroko laguntza lanaldi erdiko lan-kontratu mugagabe bakoitzeko (gutxienez % 50eko lanaldia).
 - ✓ Kontratu mugagabeek % 50etik gorako lanaldiak badituzte, dirulaguntza (laguntzaren gehieneko muga) lanaldiarekiko proportzionala izango da.
 - ✓ Gehienez 7.500 euroko laguntza, sei hilabeteko edo gehiagoko lanaldi osoko ikuskizun publikoetan aritzen diren artisten eta teknikarien eta laguntzaileen iraupen jakineko kontratu bakoitzeko.
 - ✓ Gehienez 3.750 euroko laguntza, sei hilabeteko edo gehiagoko iraupeneko lanaldi erdiko (gutxienez lanaldiaren % 50) ikuskizun publikoetan aritzen diren artisten eta teknikarien eta laguntzaileen iraupen mugatuko kontratu bakoitzeko.
 - ✓ % 50etik gorako lanaldiko edo hiru eta sei hilabete bitarteko iraupeneko lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, dirulaguntza (laguntzaren gehieneko muga) lanaldiaren eta/edo lan egindako denboraren proportzionala izango da.
 - ✓ Kolektiboentzako laguntza guztietan, laguntzaren azken zenbatekoak ezin izango du gainditu kontratatutako pertsonaren urteko soldata-kostuen % 100, enpresa kontratatzailearen kontura Gizarte Segurantzari kontzeptu guztiengatik egindako kotizazioa barne.



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

4.2 Aurreko 4.1 paragrafoan aipatzen diren kolektiboetakoak ez diren langabeak kontratatzeko laguntzetarako.

- ✓ Gehienez 8.000 euroko laguntza lanaldi osoko lan-kontratu mugagabe bakoitzeko.
- ✓ Gehienez 4.000 €-ko laguntza lanaldi erdiko lan-kontratu mugagabe bakoitzeko (gutxienez % 50eko lanaldia).
- ✓ Kontratu mugagabeek % 50etik gorako lanaldiak badituzte, dirulaguntza (laguntzaren gehieneko muga) lan egindako lanaldiarekiko proportzionala izango da.
- ✓ Gehienez 6.000 euroko laguntza, sei hilabeteko edo gehiagoko lanaldi osoko ikuskizun publikoetan aritzen diren artisten eta teknikarien eta laguntzaileen iraupen jakineko kontratu bakoitzeko.
- ✓ Gehienez 3.000 euroko laguntza, hiru hilabeteko iraupeneko lanaldi osoko ikuskizun publikoetan aritzen diren artisten eta teknikarien eta laguntzaileen iraupen mugatuko kontratu bakoitzeko.
- ✓ Lanaldi partzialeko edo hiru eta sei hilabete arteko kontratuak eginez gero, dirulaguntza lanaldiaren eta/edo lan egindako denboraren proportzionala izango da.

Kolektiboetakoak ez diren pertsonak kontratatzeko laguntza guztietan, laguntzaren azken zenbatekoak ezin izango du gainditu kontratatutako pertsona bakoitzaren urteko soldata-kostuen % 75, enpresa kontratzailearen kontura Gizarte Segurantzari kontzeptu guztiengatik egindako kotizazioa barne.

Aurrean deskribatutako zenbateko ekonomiko guztiak (4.1 eta 4.2 idatz-zatietan) % 10 igoko dira kontratuak emakumeekin egiten direnean. Dirulaguntzaren azken zenbatekoak, igoera horiek aplikatzean, ezin izango du gainditu kontratatutako pertsonaren urteko soldata-kostuen % 100, enpresa kontratzailearen kontura diren kontzeptu guztiengatik Gizarte Segurantzako kotizazioa barne.

2024ko ekainaren 30etik aurrerako soldata kostuak ez dira diruz lagunduko, inolaz ere.

Laguntza horiek Getxoko Udalak sustatzen ditu, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak finantzatzen ditu, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2023ko maiatzaren 18ko Ebazpenean oinarrituta (**2023ko maiatzaren 24ko EHAA, 97 zk.**), 2023ko ekitaldirako.

5. Baliabide ekonomikoak.

Laguntza hauek Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak finantzatzen ditu, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak 2023ko maiatzaren 18an onartutako 2023ko enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdiaren esparruan. Deialdi hori 2023ko maiatzaren 24ko EHAA eta 2023ko irailaren 26ko onespenez bidez argitaratu zen. Getxoko Udalak 153.647,40 € erabiliko ditu laguntza horietarako.

6. Eskaerak aurkezteko epea eta tokia.

Eskabideak, deialdi honetako 7. atalean adierazitako nahitaezko dokumentazioarekin batera, bide telematikoaz aurkeztu beharko dira.

Eskabideak egoitza elektronikoaren bidez egingo dira: <http://www.getxo.eus> (AEB. Administrazio Elektronikoko Bulegoa, Nire kudeaketak etxetik -> Nire erregistro telematiko -> Eskaera egin -> Ohar-eredua = Getxoko enplegurako laguntzak eskatzea, 2023: justifikazioa).

Kontsulta guztiak Getxoko Udalaren Ekonomia Sustatzeko Zerbitzuaren telefonoan (94.466.01.40) egin daitezke, edo posta elektronikoz, getxolan@getxo.eus helbidera bidalita.

Bai deialdi hau, bai eskaera-inprimakia hurrengo webgunean kontsulta daitezke: <https://www.getxo.eus/eu/promocion-economica>.

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdia ofizialki argitaratu ondoko egunetik aurrera aurkeztu ahalko dira eskaerak, betiere honako epe hauek beteta:

- Deialdi bakarra egingo da, eskaerak aurkezteko epe bat izango duena: deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik 2024ko otsailaren 5era.

Deialdian 2022ko uztailaren 1etik 2023ko ekainaren 30era bitartean hasitako kontratu guztiak sartuko dira, betiere deialdian ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

2024ko otsailaren 5era arte jasotako eskaerei dagokienez ebazpen bakarra jaulkiko da.

Eskabidea aurkeztean, interesdunek deialdi honen edukia onartuko dute.

7. Laguntza eskatzean aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Honako hau izango da pertsonak edo entitateak laguntza eskatzean goian aipatutako epean aurkeztu beharreko dokumentazioa:



7.1. Dirulaguntza eskatzeko eredu normalizatua. I, II eta III eranskinak:

- I eranskina- eskaera-eredu eta erantzukizunpeko adierazpena
- II. [eranskina ordainketa eskaera](#)
- III. eranskina. kontratazioaren datuak:

7.2. Enpresari edo entitateari dagokion informazioa:

- a) Eskatzailea pertsona fisikoa bada, Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia aurkeztu beharko du. (Soilik aurreko deialdietan entregatu ez bada, eta aldaketarik egon ez bada).
- b) Pertsona juridikoen eta entitateen kasuan: Identifikazio fiskaleko txartelaren kopia, Nortasun Agiri Nazionalarekin eta eskatzailearen ordezkapen-botereekin batera. (Soilik aurreko deialdietan entregatu ez bada, eta aldaketarik egon ez bada).
- c) Pertsona juridikoen eta entitateen kasuan, enpresa edo entitatearen eratzeko eskrituren fotokopiak, gerora egindako aldaketekin eta dagozkion erregistroetako inskripzioekin. (Soilik aurreko deialdietan entregatu ez bada, eta aldaketarik egon ez bada).
- d) Berezko izaera juridikorik ez duten sozietate zibilen kasuan, Foru Ogasunak sinatutako kontratu pribatua ere aurkeztuko da. (Soilik aurreko deialdietan entregatu ez bada, eta aldaketarik egon ez bada).
- e) Foru Ogasunak igorritako ekonomia-jardueren gaineko zergaren alta- eta baja-ziurtagiriak.

7.3. Kontratazioari buruzko dokumentazioa:

- a) Diruz lagundu beharreko lan-kontratuaren kopia, honako hauek jasotzen dituen: lanpostua, iraupen mugagabea, lanaldia eta lantokia.
- b) Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean kontratatutako pertsonaren altaren kopia.
- c) Kontratatutako pertsonaren NAN/AIZren kopia-
- d) "Inskripzio-aldien txostena" dokumentua, Lanbideak jaulkitakoa, kontratazioa hasi ondorengo datarekin.



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

- e) Gizarte Segurantzak jaulkitako langilearen lan-bizitza osoa, dirulaguntzaren xede den kontratua hasi ondoren emandakoa.
- f) Alta-egoeran dauden langileen batez besteko plantillaren txostena, Gizarte Segurantzak emandakoa eta kontratazio-egunaren aurreko sei hilabetetakoa.
- g) Alta-egoeran dauden langileen batez besteko plantillaren txostena, Gizarte Segurantzak emandakoa, kontratazioaren egunari dagokiona.
- h) Kontratazioa Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titularrei edo onuradunei egiten bazaie, egoera hori egiaztatzen duen Lanbidek emandako ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

8. Gabeziak zuzentzea.

Dirulaguntzaren eskaerak edo justifikazioak ez baditu betetzen deialdi honetan eskatutako baldintzak, edo harekin batera ez bada eskatutako dokumentazioa aurkezten, 39/2015 Legearen, urriaren 1ekoaren, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 68. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz, interesdunei eskatuko zaie 10 egun baliioduneko epean akats horien zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak bidaltzeko, eta jakinaraziko zaie, halakorik egin ezean, haien eskaera baliogabetutzat joko dutela, eta artxibatu egingo dela beste izapiderik gabe, legezko testu beraren 21.1. artikuluan aurreikusitako ondoreekin.

9. Dirulaguntza emateko prozedura eta dirulaguntza emateko irizpide objektiboak.

Lehiarik gabeko konkurrentzia-erregimeneko laguntzak emango dira, deialdi honetan xedatutako eskakizunei jarraikiz, publikitate, lehia eta objektibotasun printzipioak bermatuta.

Deialdi bakarra egingo da, eskaerak aurkezteko epe bat izango duena: deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik 2024ko otsailaren 5era. 2022ko uztailaren 1etik 2023ko ekainaren 30era bitartean hasitako kontratu guztiak sartuko dira, betiere deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Laguntza-eskaerak eskaera aurkeztu den hurrenkeraren arabera ebatziko dira, baldin eta behar bezala beteta badaude eta espedientea osatuta badago, Getxoko Udaleko aurrekontuetan xede horretarako kontsignatutako aurrekontu kredituaren mugaraino.

10. Beste laguntzekiko lehia.

Deialdi honetan araututako laguntzak bateraezinak izango dira kontzeptu eta helburu beragatik beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako beste edozein dirulaguntza edo laguntzarekin, salbu eta Gizarte Segurantzak emandako hobariak (betiere kostua gainditzen ez badute) eta 52 urtetik gorako langabeak



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

kontratzeagatiko onurak, abenduaren 12ko 45/2002 Legearen bosgarren xedapen iragankorraren 4. paragrafoan enpresentzat ezarritakoak (45/2002 Legea, langabeziagatiko babes-sistema erreformatzeko eta enplegarritasuna hobetzeko premiazko neurriei buruzkoa).

11. Izapidetzea eta ebazpena.

11.1. Deialdi honetan jasotako laguntzak emateko, Getxoko Udaleko Ekonomia Sustapeneko Zerbitzuak jardungo du Instrukzio Organo gisa. Berak aztertu eta baloratuko ditu aurkeztutako eskabideak, eta, zeregin hori egoki betetzeko, beharrezkoa deritzon dokumentazio eta/edo informazio osagarria eskatu ahalko du.

11.2. Ebazteko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra da eta proposamena aurreko paragrafoan aipatu den organo izapidegileak egingo dio. Hala ere, aipatutako organoaren proposamenari jarraikiz, 30.000 eurotik gorakoak ez diren dirulaguntzen ebazpenak emateko eskumena alkateari dagokio, ekainaren 15eko Alkatetzaren 2985/2019 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Kide Anitzeko Organoak emakida-proposamena aurkeztuko dio dirulaguntzaren organo emaileari, ekainaren 26ko Alkatetzaren 3235/2019 Dekretuaren bitartez sortutakoa, dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak ezartzen duenez, Instrukzio Organoaren bitartez.

11.3. Ebazpena emateko 2 hilabete izango dira gehienez, 6. artikuluan ezarritako eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

39/2015 Legearen, urriaren 1ekoaren, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren 25. Artikuluan xedatutakoari jarraikiz, behin ebazpena emateko epea igaro denean enpresa edo entitate interesdunari jakinarazpenik egin ez bazaio, ulertuko da eskatutako laguntza ezetsi egin dela.

Onuradunen batek berariaz uko egiten badio, dirulaguntzen Erregelamenduen 63.3. artikuluari jarraituko zaio (887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa). Ondorio horietarako, berariaz uko egiten dela iritziko da deialdi honetan finkatutako baldintzaren bat betetzen ez bada.

12. Dirulaguntzaren ordainketa.

Dirulaguntza bi ordainketetan emango da.

1. Eskumena duen Organoak ematen dituen laguntzak ebatzi ondoren, %70.
2. Gainerako % 30 ordainduko da deialdi honetan araututako kontratazio-baldintzak egiaz bete direla egiaztatzen denean, 16 idatz-zatian adierazitako justifikazioaren bitartez.



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia -Sustapena
Promoción económica

13. Ikuskapenak.

Getxoko Udaleko Sustapen Ekonomikoko eta Laneko Zerbitzuak egin ahal izango ditu diruz lagundutako ekintzei dagozkien egoki irizitako ikuskapen eta egiaztapenak, eta enpresa edo entitate onuradunek eskatutako informazio osagarri guztia aurkeztu beharko dute.

14. Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

Dirulaguntza emateko baldintzak edonola aldatzen badira, emakida-ebazpena aldatu daiteke, baldin eta arau honetan onuradun izateko gutxienerako baldintzak babesten badira. Ondore horietarako, Organo Eskudunak dagokion aldaketa-ebazpena emango du, eta bertan aldatuko dira emandako dirulaguntzen zenbatekoak.

15. Erakunde onuradunen betebeharrak.

15.1. Deialdiko laguntzaren bat jasotzen duten enpresek, profesionalak eta entitateek betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Emandako dirulaguntza onartuko dute. Alde horretatik, dirulaguntza eman zaielako jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean erakunde onuradunak ez badu esanbidez adierazten uko egiten diola, onartu egin duela ulertuko da.
- b) Laguntza honen xedea betetzea, 1 idatz-zatian adierazitakoa.
- c) Foru Ogasunarekiko, Gizarte Segurantzarekiko eta Getxoko Udalarekiko zerga-betebeharrak egunean izatea.
- d) Getxoko Udalak egin beharreko egiaztatze-jardueren mendean egotea, baita beste Kontrol Organo eskudunak egin ditzaketen egiaztapen- eta finantza-kontrolako beste edozeinen mendean ere (estatukoak nahiz Europakoak), aurreko jarduerak egikaritzean eskatutako behar besteko informazioa emanaz.
- e) Kontabilitate-liburuak, izapidetutako erregistroak eta, hala badagokio, behar bezala ikuskatutako gainerako dokumentuak izatea, onuradunari aplikatu beharreko merkataritza- eta sektore-legediak eskatzen dituen baldintzetan, baita laguntzak arautzeko deialdiak eskatutako kontabilitate-estatu eta erregistro espezifiko guztiak ere, egiaztapen- eta kontrol-ahalmenak modu egokian erabiltzen direla bermatzeko.
- f) Laguntza hauen xede diren jarduerak finantzatzeko jasotzen dituen beste laguntza, diru-sarrera edo baliabideen berri ematea Getxoko Udalarari. Jakinarazpen hori idatziz egin beharko da, haren berri izan bezain laster.



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

- g) Udalarri jakinaraztea dirulaguntza emateko kontuan hartutako edozein inguruabar aldatzen bada, bai aldagata objektiboa bada bai subjektiboa bada.
- h) Getxoko Udaleko Sustapen Ekonomikoko Zerbitzuari, helaraztea laguntza-eskaera ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotako behar beste informazio edo dokumentazio osagarri.

16. Dirulaguntzaren justifikazioa.

Dirulaguntzaren justifikazioa dirulaguntza eman eta gehienez ere hilabeteko epean aurkeztu beharko da, betiere diruz lagundutako aldia (12 hilabete) amaitu bada. Diruz lagundutako aldia amaitu ez bada, amaitu eta gehienez ere hilabeteko epean entregatu beharko da. Horretarako, ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko du:

- a) IV. eranskina beteta.
- b) Honako dokumentazio hau:
 - Kontratututako pertsonaren "afiliatu baten lan-bizitzaren txostena", laguntza eskatzen den aldian eta lanaldian enpresan jarraitzen duela egiaztatzen duena.
 - Kontratututako pertsonaren Kotizaziorako Datuen Txostena - Besteren Konturako Langileak (IDC), justifikazio-aldia barne hartzen duena.
 - Laguntzaren xede den aldian zehar diruz lagundutako kontratuaren nominen kopia eta horiek kobratu izanaren bankuko egiaztageria (edo bi aldeek sinatutako nomina).
 - Kotizazioaren likidazioaren ordainageria, langileen nominen zerrenda eta haien ordainketaren egiaztageriak.

17. Dirulaguntzak itzultzea.

Jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira, baita dirulaguntza ordaintzeko unetik dagozkion legezko interesak ere, laguntzen entitate onuradunek deialdi honetan, emakida-ebazpenean eta gainerako arau aplikagarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte; horrek ez ditu oztopatuko ez-betetzearen ondorioz bidezkoak diren ekintzak.

Honako hauek joko dira itzultzeko kasutat:

- dirulaguntza horretarako baldintzak bete gabe lortzea.
- dirulaguntzaren helburua ez betetzea.



Getxo

bizi ezazu

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

- Justifikazio-betebeharra ez betetzea.
- Emakidaren ondorioz onuradunei ezarritako baldintzak ez betetzea.
- Kontrol-jarduketei uko egitea edo horiek oztopatzea.
- dirulaguntzak gainditzea garatutako jardueraren kostua.

18. Emakiden publizitatea.

Emandako diru laguntzak diru laguntzen datu base nazionalera igorriko dira 3/2003 Legearen, azaroaren 17koaren, Diru laguntzei buruzkoaren, 20. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Gainera, haiek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

19. Ordezko araubidea.

Deialdi honetan aurreikusi ez denerako, Getxoko Udalaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntzen ordenantza orokorra aplikatuko da. Ordenantza hori 2021eko abenduaren 23ko Osoko Bilkuran onartu zen eta 2022ko martxoaren 16an argitaratu zen BAOan, eta hor daude ezarrita oinarri arautzaileak; halaber, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea aplikatuko dira.

20. Datu pertsonalen babesa.

Zure datuak Getxoko Udalaren (Foruen kalea 1, getxolan@getxo.eus) ardurapeko "EKONOMIA SUSTAPENA" tratamenduan sartzen dira. Tratamendu horren helburuak honako hauek dira: tokiko enpresa-sareari eta ekintzaileei aholkularitza eta prestakuntza ematea, dirulaguntzak eta laguntzak kudeatzea, enpresak dinamizatzeko eta sustatzeko ekintzak, prospektiba sozioekonomikoa, sustapen ekonomikorako espazioak erreserbatzeko kudeaketa, terrazak instalatzeko espazio publikoa okupatzeko espedienteak kudeatu eta izapidetzea, eta sustapen ekonomikoko jardueren zabalkundea, komunikazioa eta hedakuntza. Tratamenduaren oinarri juridikoa baimena ematea eta legezko betebeharra nahitaez betetzea da, eta datuak arduradunarekin, sektore publikoko beste administrazio eta erakunde batzuekin, hornitzaileekin eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalarekin lotura zuzena duten erakundeei laga ahal izango zaizkie. Aldez aurretik baimena emanda, argazkiak edo irudiak argitaratu ahal izango dira sare sozialetan, bideoetan, liburuxketan, webguneetan, hedabide instituzionaletan, argitalpenetan eta komunikabideetan, karteletan eta markesinetan, besteak beste. Titularrak datuak jasotzeko, zuzentzeko, ezabatze edo lekualdatzeko eskubidea du, eta datuak tratatzearen aurka agertzeko idatzizko jakinarazpena bidali beharko du Getxoko Udalera edo datuak@getxo.eus helbide elektronikora (datuak babesteko ordezkaria). Kasu bietan nortasuna egiaztatzeko agiria bidali beharko du. Horretarako eskuragarri



dagoen izapide elektronikoa udalaren egoitza elektronikoa ere abiatu daiteke. Informazio gehiago hemen: www.getxo.eus/datos

21. Zehapen-araubidea.

Arau-hausteen eta zehapenen araubidea izango da 38/2003 Legeak, azaroaren 17koak, dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak, IV. tituluan; 2/1998 Legeak, otsailaren 20koak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen Zehatze Ahalmenari buruzkoak; eta 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, xedatutakoa.

Deialdi honetan berariaz jaso ez den guztirako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2023ko maiatzaren 18ko Ebazpenean (2023ko maiatzaren 24ko EHAA) 2023ko ekitaldirako enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen deialdiari buruz xedatutakoa beteko da.